

**'GAUEKOAK'-EN PROIEKTU POLTSA
ERATZEKO OINARRIAK**

'GAUEKOAK'-EN PROIEKTU POLTSA ERATZEKO OINARRIAK

1. HELBURUAK

Helburu nagusia gazteek, kolektiboak eta hiriko elkarteak eratutako proiektu poltza bat sortzea da, eta honen bitartez, Gasteizko aisialdi eta kulturaren hiriko gazteen parte hartze aktiboa bultzatzea, Gasteizko Udaletxeko Gazteria Zerbitzuko 'Gauokoak' programazioaren barruan.

Helburuak honako hauek dira:

- Aisialdirako aukera sortzaile, osasungarri eta parte hartzailea eskaintzea.
- Pertsona eta kolektibo gazteen parte hartzea bultzatzea jardueren diseinu eta abiaratzean.
- Hiriko gazteen eta kolektiboen arteko harremanak sustatzea, lan taldeak eta elkarlanak sor daitezen laguntzeko.
- Gizartearen eraldaketarako prozesu inklusiboen garapena babestea.
- Aisialdian euskararen erabilera sendotzea.

2. HARTZAILEAK

Gasteizko pertsona fisiko, kolektibo eta elkarteak aurkeztu ahal izango dira deialdi honetara. Taldean aurkeztutako lanak aintzat hartuko dira batez ere, gutxienez hiru pertsonako taldeetan.

3. POLTSAREN IRAUPENA

2021eko programazioetan gauzatu nahi diren proiektuak **urriaren 9tik azaroaren 9ra bitartean aurkeztu beharko dira**. Hala ere, proiektu poltza zabalik egongo da etorkizunerako proposamenak egiteko.

Esan beharra dago aurrekontu edo programazio mugak direla eta gauzatu ezin diren proiektuak etorkizunean finantzatu ahal izango direla.

4. JARDUERA-EREMUAK

Edozein motako proiektuak aurkeztu ahal izango dira, betiere eremu hauetako batean oinarrituz:

- a. Kultura.
- b. Kirola eta kirol jarduerak.
- c. Osasuna eta bizi kalitatea.
- d. Ingurunea eta jasangarritasuna.
- e. Sormena eta berrikuntza.
- f. Informatzeko eta komunikatzeko teknologiak.
- g. Hezkuntza librea eta aisialdi hezigarria.
- h. Elkarkidetasuna eta sentsibilizazioa.
- i. Kulturartekotasuna eta aniztasuna.
- j. Genero berdintasuna.
- k. Euskara eta euskal kultura.
- l. Orokorrean, Gazteria Zerbitzuak kudeatzen duen beste edozein gai.

Gazteentzako eta udalerrirako proiektu erakargarriak izan behar dira.

5. PROIEKTU MOTAK ETA BEREN EGITURA

5.1. LAN METODOLOGIA

Proiektu bakoitzak jardueraren garapen-formatu egokiena aurkeztuko du lortu nahi diren helburuak eta nori dagoen zuzendua kontuan izanda. Horretarako, estrategia desberdinak erabili ahalko dira, hala nola, sare sozialak, informazio kanpainak, bisitak, ikuskizunak, topaketak, tailerrak...

Betiere, proiektuak metodologia aktibo, inklusibo eta parte hartzaile baten bitartez gauzatu beharko dira non erritmo desberdinak, lan prozesuak eta hartzaileen ezaugarriak kontutan hartuko diren. Modu honetan proposatutako jarduerak eta metodologiak ezarritako helburuak lortzeko estrategiari erantzun diezaion.

Hala ere, uneoro egokituko dira jarduerak indarrean dagoen araudiari, edukiera-mugei, espazioak partekatzeari, segurtasun-distantziei eta abarri dagokionez. Proposamenek beste aukera batzuk ere jaso beharko dituzte proposatutako metodologian, COVID19 berragertuz gero, beste aukera bat izateko.

5.2. 'GAUEKOAK' PROGRAMAREN LAGUNTZA

Laguntza ekonomikoaz gain, 'Gaukoak' programak beste baliabide batzuk jarriko ditu hautatutako proiektuen eskura:

- Proiektuaren behin behineko diseinua lortzeko laguntza.
- Espazio desberdinak erabiltzeko erraztasuna.
- Ikus-entzunezko baliabideen mailegua.
- Hedapena.

5.3. EGUTEGIA

Proiektuak 2021.urteko programazioetan gauzatuko dira.

5.4. GIZA BALIABIDEAK

Proiektu bakoitzaren ardura duen erakundeak eginkizun hauek bermatzeko konpromezua hartzen du:

- Koordinatzaile bat izendatzea 'Gaukoak' programarekin koordinatzeko eta erreferente bat izateko. Arazoren bat sortzekotan, berehala jakinarazi beharko zaio 'Gaukoak' programako lan taldeari.
- Hasiera batean proposatutako pertsona ezingo balitz jardueraz arduratu, beste pertsona batek hartuko luke bere lekua.
- Proiektua garatu adostutako edukia eta epeetara moldatuz.
- 'Gaukoak' programaren irizpide eta argibideak momentu oro jarraitu.
- Proiektuaren garapenean sortzen diren arazoak berri eman.

6. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Hau izango da proiektu bakoitzak aurkeztu beharko duen dokumentazioa:

a. Eskaera-orria beteta. (I. ERANSKINA)

*Proiektuaren arduradun gisa agertzen den pertsonaren NANaren fotokopia erantsi beharko da.

b. Garatu beharreko jardueren proiektu xehatua. (II. ERANSKINA).

c. Proiektua 18 urtetik beherakoek aurkezten badute, III. eranskina osatuko da guraso edo tutorearen baimenarekin. (III. ERANSKINA).

*Proiektuak aurkezteak esan nahi du erakunde eskatzaileak berariaz onartzen dituela oinarri hauetan ezarritako eskakizun eta arau guztiak.

7. PROIEKTUAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Proiektuak aurkezteko epea **urriaren 9an irekiko da eta azaroaren 9an amaituko da** (biak barne).

Proiektuak pdf formatuan bidali beharko dira, posta elektronikoz, info.gauekoak@gmail.com helbidera, "GAUEKOAK 2020 PROIEKTUEN POLTSA" gaiarekin.

Proiektuak egiteko edo eranskinak betetzeko zalantzaren bat izanez gero, gurekin harremanetan jar zaitzekete helbide elektronikoa honetan: info.gauekoak@gmail.com

8. EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Proiektuak irizpide hauen arabera ebaluatuko dira:

- Proiektuaren berrikuntza metodologiaren eta helburuen arabera (originaltasuna) **(20 puntu)**
- Hiriko beste eragile batzuekin lankidetzan aritzea **(20 puntu)**
- Antzeko jardueren defizita hirian **(10 puntu)**
- Gazteen inplikazioa eta parte-hartzea **(15 puntu)**
- Genero-ikuspegia sartu eta sustatzea **(10 puntu)**
- Euskaraz proposatutako eta garatutako jarduera izatea **(10 puntu)**
- Proiektuaren bideragarritasuna **(5 puntu)**
- Zeharkakotasun kulturala, kulturartekotasuna, inklusioa eta kolektibo minoritarioen parte-hartzea sustatzea. **(10 puntu)**

Gehiengo puntuazioa: 100 puntu.

9. POLTSAREN ERAKETA

Puntuazio-irizpideak aplikatuzetik proiektuen poltsa bat aterako da, eta lortutako puntuazioaren arabera ordenatuko dira proiektuak. Behin poltsa eratuta, 'Gauekoak' programaren programazioaren beharrei eta intereseei erantzuneko proiektuak hautatu eta martxan jarriko dira eskura dauden baliabideen arabera.

2021 urteko programazioan haien proiektua aurrera eramateko hautatuak izan ez diren proiektuak poltsan mantenduko dira etorkizuneko esku-hartzeetarako; programazioaren beharren, interesen eta aukeren arabera.

10. AUKERATUTAKO PROIEKTUAK ETA ORDAINTZEKO MODUA

Poltsa eratu ondoren, proiektuak abian jarriko dira. Hautatutako pertsona fisikoak eta/edo erakundeak kontratatu ahal izango dira, betiere jarduteko gaitasuna badute, eta gaitasun hori indarreko Sektore Publikoko Kontratuaren legerian ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko da. Gainera, zerga- eta gizarte-betebeharrak egunean izan beharko dituzte.

Ordainketa zatikatu ahal izango da, proiektu bakoitzaren ezaugarrien arabera, hala nola gauzatze-denbora eta aldez aurreko erreserba-beharrak. Kontratu bakoitzean dagokion modua ezarriko da. Nolanahi ere, faktura aurkeztu ondoren egingo dira ordainketak, teknikari arduradunaren oniritziarekin.

11. PERTSONEN BETEBEHARRAK

Arduradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

- a. Aurreikusitako proiektua edo programa gauzatzearen ondoriozko erantzukizun guztiak bere gain hartzea.
- b. Saria jaso zuen programa edo jarduera ez aldatzea aldez aurreko abisurik gabe edo "Gaukoak" lanarldaren adostasunik gabe.
- c. Gaukoak lantaldeak proiektua gauzatzeko egokitzat jotzen dituen egiaztapenak, jarraipena eta jarraibideak onartzea.
- d. Publizitatean, komunikazio-ekintzetan eta jendurrean egindako laginetan adieraztea proiektua, programa edo jarduera Gasteizko Udalaren eta 'Gaukoak' erakundearen laguntzarekin egiten dela.
- e. Sexuan, jatorrian, erlijioan edo proiektu, programa edo jarduerarekin lotutako publizitatearen eta komunikazioaren hizkuntzan edo irudian oinarritutako bereizkeriarik ez egitea.
- f. Proiektu, programa edo jarduerarekin lotutako publizitatean eta komunikazioan euskararen erabilera normalizatzeko irizpideei jarraitzea.

11. EGINDAKO PROIEKTUAREN MEMORIA

- a. Jarduera amaitu ondoren, 'Gaukoak' lantaldearekin batera esperientziaren balorazioa egingo da.
- b. Balorazio honetan aurkeztu beharreko dokumentazioa, gutxienez, honako hau izango da:
 - Garatutako jardueraren memoria.
 - Halakorik balego, diruz lagundutako jarduera edo ekitaldiagatik editatu edo argitaratu diren liburuxka, kartel, liburu, bideo eta abarren ale bana.